



AVANTI ABETXUKO ARGITALPENA

Aldizkaria bitarteko ona da norbere burua ezagutzera emateko eta egileen gaitasunak, nahiak, praktikak eta ideologiak plazaratzeko.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo gazteriari hitza eman eta indartzea. • Talde-lana bultzatzea. • Gazteen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa sustatzea. • PKTenteres aldizkaria gazteengana hurbiltzea, haien tresna eta adierazpide gisa senti dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 14 – 18 . 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2.30 h/s +1 ebaluazioa.

ABETXUKO ARGITARATUZ EZAGUT ZAITZATEN

Argitaratzailea:  Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:  Arabako Foru Aldundia  Diputación Foral de Alava  GAZTEDAREN FORU ERAKUNDEA  INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

PKTENTERES-EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAIGUZU! pktenteres@vitoria-gasteiz.org



2007ko martxoako azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKT*expreses Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espirtu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKT*enteres aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKT*enteres (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamikoa eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKT*enteres: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. AVANTI ABETXUKO ARGITALPENA

EDIZIOA: *aldizkari bat nola egin*. Gasteizko Abetxuko auzoko gazte-talde bati euren beharrak asetzeko aldizkari bat egitea bururatu zaie.

Aldizkaria bitarteko ona da norbere burua ezagutzera emateko eta egileen gaitasunak, nahiak, praktikak eta ideologiak plazaratzeko. Baliabideak ez dira gainditu ezineko oztopo. Teknologia berrien aroan argitalpenak ia “eskuz” egin daitezke.

Lantegi honetan, ordenagailurik erabili gabe eta diseinu eta edizio kontuetan eskarmenturik izan gabe, aldizkari bat egiteko beharrezkoak diren tresnak eskainiko dira.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKT*expreses lantegien helburu orokorrak:

- *PKT*enteres aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espirtu kritikoa bultzatzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilketa-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.
- Inguruko mundua aztertzeke duten gaitasuna suspertzea.
- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkunde biziartzea.
- Nerabeen interesak eta kezak ezagutzea.

*PKT*expreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKT*enteres aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako azken edukiak.

Jaits ezazu *PKT*enteres 46.zbk. (2007ko martxo) www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.

Lantegi honetako helburu zehatzak honako hauek dira:

- Nerabe-taldearen behar zehatzak ezagutzea.
- Gazteen jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Argitalpen edo edizioaren inguruko hausnarketa bultzatzea: gaitasunak, aukerak, amarruak, arriskuak... (zer esaten den, nola esaten den, zertarako esaten den).
- Berdintasunean eta genero kontuetan hezteak.
- Inguruko mundua aztertzeke parte-hartzaileek duten gaitasuna suspertzea.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.
- Taldeak bestelako proiektuetan duen parte-hartze maila ezagutzea.



Lantegian aztertutako materiala .

3. EDUKIAK

Ondoren, lantegian landuko ditugun puntuak jarriko ditugu. Puntu guztiak dira garrantzitsu aldizkaria eta bere atalak definitzeko orduan eta banaketa egiteko ere, kontuan hartu beharrekoak izango dira:

- Aldizkari bat egiteko arrazoiak.
- Izena.
- Logoak.
- Aldizkariaren helburua.
- Nori zuzendua da?
- Jarraitu beharreko argitaratze-ildoak.
- Atalak (gaiak, hedadura, ikuspuntuak...).
- Aldizkakotasuna.
- Aldizkariaren oinarritzko maketa.
- Goiburukoak.
- Irudien, marrazkien, argazkien... erabilera.
- Aldizkariaren azken itxura (itxura, azalak, etab.).

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea da. Aldizkariaren “zero” zenbakia egingo dute. Auzoan haien burua ezagutzera emango dute (eta baita auzotik kanpo ere aukera izan ezkerre).

- Egoera aztertu.
- Proiektua sortu.
- Edukien aukeraketa.
- Proiektua egituratu.
- Edukiak sortu.
- Idea eta proiektua gauzatu.



OHARRA:

Parte-hartzaileen gurasoek sinatutako baimena behar dugu, adin txikikoak direlako eta irudiekin lan egiten dugulako.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 10 lagun.
Adina: 15 – 16 urte.
Sexua: Talde mistoa.

Abetxukoko Gazte Klubeko gazte-talde batek aldizkari bat egin nahi du. Auzoko 10 bat lagun dira eta auzokide batek banatutako eskutitz batean, gazteen inguruan azaltzen zen irudi estereotipatu eta gutxiesgarriak mindu egin ditu.

Erantzun gisa, euren burua ezagutzera eman nahi dute (ideiak, jarduerak, jokaerak) auzoaren aurrean, gazteria auzokideak bere eskutitzean esaten zuen bezalako (alferrak, baldarrak...) ez dela frogatzeko asmoz. Horretarako, aldizkari bat egitea erabaki dute eta Udalari proiektua aurrera ateratzeko behar duten guztia eskatu diote (Gazte Klubeko Hugo begiralearen eskutik).

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2007ko urtarrila, otsaila eta martxoa.

Urtarrilak 312.30 h (18:00-20:30h).
Otsailak 02.....2.30 h (18:00-20:30h).
Otsailak 07.....2.30 h (18:00-20:30h).
Otsailak 16.....2.30 h (18:00-20:30h).
Martxoak Xx.....1 h (ebaluazioa).

PKTexpreses lantegietan kasu bitxia da hau, gazteak eurak izan baitira "laguntza" eta euren proiektua aurrera ateratzeko tresnak eskatu dituztenak.

7. KOKAPENA

Lantegi hau Abetxukoko Gazte Klubeko egoitzan egingo da.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala.
- "Artisau-aldizkariak" zenbait ale.
- Aldizkaria egiteko beharrezko materiala (lantegia aurrera joan ahala definituko da).

Azpiegiturak:

- Batzarrak eta aldizkaria egiteko areto bat.



9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

Egiten dituzten jarduerak eta haien interesak eta kezak aditzera emateko aldizkari bat egitea erabaki dute.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa

5eranskina: 5. saioa

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egina da.





1. SAIOA

HELBURUAK	<p>Nerabe-taldearen behar zehatzen berri izatea. Haien jardunean praktika egokiak sustatzea. Taldeak bestelako proiektuetan duen parte-hartze maila ezagutzea.</p>
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKTexpreses.	PKTenteres.
10 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> .	Baimen-orria.
20 min.	Taldea eta lantaldeak ezagutu.	Aldizkariaren gaur egungo egoera (badaramate zenbait denbora lanean).	Bulegoko materiala.
30 min.	Egoera birplanteatu.	Taldearen eskaerak.	
15 min.	Bestelako “artisansau-aldizkarien” aleak ikusi.	Komunikatzeko modu eta egitura desberdinak.	Zenbait aldizkarietako aleak.
30 min.	Zenbait eskema egin.	Helburuak, faseak, atalak.	
15 min.	Lan-egutegia ezarri.	Garrantzitsua da muga-data jartzea.	Egutegia.

PKTaren aurkezpena----- **10 min.**
 Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu ----- **10 min.**
 Lantegia azaldu: Avanti Abetxuko Argitalpena. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Taldea eta lantaldeak ezagutu----- **20 min.**
 Taldea eta haren beharrak eta nahiak ezagutu. Taldeak orain arte egindakoaren azalpen laburra egingo du, gaiak, atalak, antolaketa, etab.

Egoera birplanteatu----- **30 min.**
 Orain arte egindakoa ikusi ondoren, taldeari galdera berriak egingo zaizkio aurrerantzean hartu beharreko bidez erabakiak hartu ahal izateko: edukia, formatua, estetika, lan egiteko modua...

Bestelako “artisansau-aldizkarien” aleak ikusi----- **15 min.**
 Zenbait aldizkarietako aleak ikusiko ditugu eta jarraitu beharreko eredurik egongo ez den arren, erabakiak hartzeko eta hasitako lanari jarraipena emateko laguntza eskainiko digute.

Zenbait eskema egin----- **30 min.**
 Aldizkariaren ideia orokorra dugunean, eskema txikiak egingo ditugu ideiak zehazten joateko. Atalak, gaiak, edukiak, irudiak, testuak, etab.

Lan-egutegia ezarri----- **15 min.**
 Egutegia aurrean dugula, lanerako datak eta argitalpen-data erabaki. Lantalde txiki bakoitzak lan-konpromiso bat hartuko du hurrengo talde-lanerako data iritsi bitartean.



2. SAIOA

HELBURUAK	Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea . Edizioaren eta bere gaitasunen inguruko hausnarketa sustatzea.
------------------	---

DEBNORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
35 min.	Berrikusi.	Egindako lana.	Lanak eta lan-prozesuak.
50 min.	Segimendua.	Lantalde bakoitzak lantzen dituen atal eta lan egiteko moduak.	Bulegoko materiala.
20 min.	Tipoak ikusi.	Diseinua eta itxura.	Zenbait aldizkarien aleak.
15 min.	Erantzukizuna esleitu.	Lana eta datak.	Egutegia.

Berrikusi-----**35 min.**

Egindako lanaren kontrola. Lantalde txiki bakoitzak egindako lana aurkeztuko du taldearen aurrean. Lehen saiotik egindako guztia berraztertu.

Segimendua-----**50 min.**

Lantalde bakoitzak lantzen dituen atalen eta lan egiteko moduen segimendua. Aurkezpen orokorra egin ondoren, atal bakoitza zehatzago aztertzeari ekingo diogu, edukiak eta taldearen lan egiteko moduak. Talde bakoitzak bere lana besteekin komentatzen du: zailtasunak, arazoak, aukerak, trikimailuak, etab. Lan egiteko moduen inguruko eztabaida. Eztabaidan honetan, atalen edukiak ere komentatu dira eta taldeak egoki iruditzen zaizkion aldaketa guztiak egingo ditu.

Tipoak ikusi-----**20 min.**

Diseinuaren eta itxuraren inguruko gaiak jorratu. Bestelako aldizkarien aleak ikusi ondoren, Avanti Abetxuko-ren itxurari buruzko eztabaida.

Erantzukizuna esleitu-----**15 min.**

Bakoitzari dagokion erantzukizuna esleitu. Talde txiki bakoitzak eta kideetako bakoitzak aldizkarirako dagokien lanaren erantzukizuna hartuko dute taldearen aurrean.



3. SAIOA

HELBURUAK	Parte-hartzaileek inguruko mundua aztertze ko duten gaitasuna suspertzea. Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Materiala jaso.	Egindako lanak: Atalak eta sailak, edukia, testuak, irudiak...	Egindako materiala, eginkizun-eskemak, egutegiak, etab. Bulegoko materiala.
20 min.	Ebaluazioa.	Itxura.	
20 min.	Itxura bateratu.		
30 min.	Puntuak ezarri.	Banaketa-puntuak eta ale-kopurua zehaztu (aurrekontuaren eta balizko irakurleen arabera).	
30 min.	Behin betiko itxura.		

Materiala jaso----- **20 min.**

Egindako lan guztiak birpasatu.
Komunean jarri eta prozesuen inguruko iruzkin laburrak.

Ebaluazioa----- **20 min.**

Egindako lanaren ebaluazioa.
Taldeak egindako lana balioetsiko du. Indarguneak eta sendotu beharreko ahulguneak identifikatu.

Itxura bateratu----- **20 min.**

Itxura bateratua. Zati guztien itxura bateratuz, atal guztiak batuko dira osotasuna lortzeko.

Puntuak ezarri----- **30 min.**

Banaketa-puntuak ezarri eta ale-kopurua zehaztu (aurrekontuaren eta balizko irakurleen arabera).

Behin betiko itxura----- **30 min.**

Behin betiko itxura (aldizkariaren azalak egiteko bestelako materiala erabil daiteke).
Aldizkariaren behin betiko itxuraren inguruko xehetasunak zehaztu.
Avanti Abetxuko egiteko beharrezko izango diren materialak zehaztu.
“Beharren zerrenda” sortu.



4. SAIOA

HELBURUAK

Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkundean bizkortzea.
Gazteen arteko **lotura parte hartzaile berriak** sortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
60 min.	Aldizkaria muntatu.	Aldizkariaren prototipoa.	Taldeak 3. saioan definitutako "materialen zerrenda". Grapak, etab.
30 min.	PKTenteres aldizkariko kolaborazioa definitu.	PKTan argitaratuko den materiala.	
20 min.	Xehetasunak azkendu.	Banaketa.	
10 min.	Aldizkariak banatu.	Egutegia.	

Aldizkaria muntatu-----**60 min.**

Lana prestatu. Lantegiak irauten duen denboran aldizkariaren prototipoa egin, egindako lana eta materiala erabiliz.
Gainontzeko aleak beranduago egingo dituzte beraien kabuz.

PKTenteres aldizkariko kolaborazioa definitu-----**30 min.**

PKT aldizkariko bi orrialde lantegiko edukiak sartzeko gordeko dira. Tarte honetan, taldeak agertu beharreko irudiak eta testuak aukeratuko ditu eta beraiek muntatuko dute orrialde honetako edukia (salbuespena PKTko gainontzeko lantegien artean).

Xehetasunak azkendu-----**20 min.**

Banaketari buruzko xehetasunak azkendu. Denen artean kronograma definituko da eta beranduago bukatuko da.

Aldizkari-banaketa-----**10 min.**

Banaketa-xehetasunen kasuan egin den bezala, banaketa-eginkizunak organigrama batean antolatuko dira eta beranduago egiteko utziko da.